



ITXAROBIDE

KOMUNIKATUA

**2020 HELBURUA,
GIBagatik ZERO TRANSMISIO:**

PREBENTZIO ETA TRATAMENDUA, ESTRATEGIA SEGURUENA

Abenduaren 1a

HIESAREN KONTRAKO BORROKAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Bilbao, 2014ko Azaroren 20an

Abenduaren 1.a, Nazio Batuek Hiesaren kontrako borroka ospatzeko aukeratutako eguna da, urteroko aukera bakarra da sentikor bihurtu eta eragin ahal izateko prebentzioaren garrantziari dagokionez, hala-nola oraindik populazioaren artean gailentzen den Vih/sida-ren irudi estigmatizantea aldatzeari ekiteko. Pentsatzen dugu aukera azaltzen dela bai Bilbaon eta baita Bizkaiko lurralde historiko guztian ere elkarteetatik eta erakunde publikoen euskarriaz, GIB/HIES-aren epidemiaren kontrako geroz eta erantzun duinago baten alde, egiten ari den erkidego-lana ikusgai bihurtzeko.



ITXAROBIDE

Hiesaren aurkako borrokaren Nazioarteko eguna dela eta, Abenduaren 1ean (Astelehena), goizeko 9:00etatik eta eguerdiko 14:00ak arte, Itxarobide elkarteak, T4 elkarteak eta Bizkaiko Hiesaren aurkako Komisioak (Comisión antisida de Bizkaia), promozio eta prebentzioa lantzeko jarduera bat antolatu dute, Bailen eta Nabarra kaleen elkargurutzean, Bilbaon, Arenaleko zubia zeharkatu aurretik. Bertan aurkitu ahal izango dugu jaima urtero bezala.

Goizean zehar, Bilbo erdialdeko gunetatik pasatzen diren oinezkoen, prebentziorako materiala banatuko zaie, hala-nola bai gizon eta baita emakumezkoentzako kondoiak, gure elakrteen eta burutzen dugun lanaren inguruan hitz egiten duten informazio-orriak, eta baita GIB/HIESaren, ITS-en eta orokorki prebentzioaren inguruan informatzen duten eskuorriak.

Goizeko 10:00etatik aurrera, goiza alaitzeko zuzeneko musika izango dugu **Friqbil Band**-en eskutik, Afrikan jatorria duen Bilboko taldea.

11:00-ak aldera izango da ONG-en “**2020 HELBURUA, GIBagatik ZERO TRANSMISIO: PREBENTZIOA ETA TRATAMENDUA, ESTRATEGIA SEGURUENA**” adierazpenaren irakurketa. Bertan maila lokaleko erreibindikazioak eta estatuko mailako gaur egungo egoera nabarmentzen da. Mariano Gómez Fernández jaunaren presentzia izango dugu, Bilboko Udalaren Osasun eta Kontsumo Sailaren Zinegotzia.

Estatu mailako sarean, hainbat plataformatan lan egiten dugula nabarmendu behar da. Haietako bat CESIDA da, GIB-Hiesa Estatu Koordinatzailea. Gogoeta bateratu bat egiten dugu nazio mailan GIB/HIESa duten pertsonekin lan egiten dugun ONG-ok, baina Erkidego bakoitzaren errealitateari egokituta.

Bertoko komunikabideei deia luzatzen diegu jarduera honen partaide izateko.



ITXAROBIDE

Bozeramaileak:

Marco Imbert: 686143078-944221240
Udiarraga García Uribe: 630241203-944449250

Coordinación logística de esta actividad:

Claudia Rivera
Asociación Itxarobide
944449250 - 630241203
C/Iparraguirre 54, 1º Dpto 10
Bilbao-48010
www.itxarobide.com
elkartea@itxarobide.com
Estamos en Facebook y Twitter

Antolatzaileak:

Comisión Antisida de Bizkaia.

Asociación T4 de lucha contra el Sida.

Asociación Itxarobide.

Laguntzailea:

